

L'alternative de gauche pour Hendaye

Ezkerreko alternatiba Hendaiarentzat

ELECTIONS MUNICIPALES
15-22 mars 2026

HERRI HAUTESKUNDEAK
2026ko martxoak 15-22

INDAR BERRIA
HENDAIA BERRIA
UN NOUVEAU SOUFFLE





Notre engagement pour Hendaye repose sur cinq priorités claires, au service de toutes les Hendayaises et de tous les Hendayais.

D'abord, **LA DÉFENSE DU POUVOIR D'ACHAT**. Nous mènerons une politique active en faveur de logements abordables à l'année, afin de permettre à chacun·e de vivre et travailler dans notre commune. Nous agissons pour garantir l'accès à une alimentation saine et de qualité, tout en soutenant le développement économique local, créateur d'emplois et de dynamisme.


Nous voulons également **PRÉSERVER NOTRE CADRE DE VIE**. Cela passe par la végétalisation de l'espace public, le développement des énergies renouvelables et l'adaptation de la voirie pour sécuriser tous les moyens de déplacement. Nous encouragerons les mobilités douces afin de construire une ville plus apaisée et plus durable.

LE LIEN SOCIAL est au cœur de notre projet. Nous favoriserons les échanges entre générations, lutterons contre toutes les discriminations et toutes les violences, prendrons pleinement en compte les situations de handicap et impulserons des projets ambitieux en direction de nos aîné·e·s.

Nous porterons aussi la **PROMOTION DE L'EUSKARA** en le reconnaissant pleinement au niveau municipal, en développant une communication bilingue, en réalisant un travail toponymique exhaustif et en associant les partenaires du territoire à une commission dédiée.

Enfin, nous ferons de **LA TRANSPARENCE DÉMOCRATIQUE** une exigence. Chaque année, le budget municipal sera présenté publiquement, expliqué et débattu, afin que chacune et chacun puisse comprendre, proposer et participer aux choix qui engagent l'avenir de notre commune.

Laetitia Navarron
Tête de liste
Hendaia Biltzen



Hendaiaren aldeko gure engaiamenduak bost lehentasunetan du oinarria eta horiek hendaia guztien zerbitzura ezarriko ditugu.

Lehenik, **EROSMEN-AHALMENAREN BABESA**. Politika aktiboa burutuko dugu urte osoko etxebizitza eskuragarrien alde, denek aukera izan dezaten gure herrian lan egiteko eta bizitzeko. Kalitatezko elikadura osasuntsua denen eskuetara izan dadin lan eginen dugu. Tokiko ekonomiaren garapena sustengatuko dugu, enplegu eta bizitasunaren sortzaile nagusia den heinean.

Halaber, gure **INGURUNEA BABESTU** nahi dugu. Horrek galdegiten du eremu publikoa begetalizatzea, energia berriztagarriak garatzea eta herriko bideak egokitzea joan-etorri mota guztiak segurtasun osoz egin ahal izan daitezen. Mugikortasun eztiak bultzatuko ditugu, gure hiria lasaiagoa eta iraunkorragoa izan dadin.

LOTURA SOZIALAK gure proiektuaren erdigunean daude. Belaunaldiarteko harremanak sustatuko ditugu, diskriminazio eta bortizkeria mota ororen kontra borrokatuko gara, elbarritasun egoerak kontuak hartuko ditugu eta gure zaharrei begirako egitasmo garrantzitsuak sustatuko ditugu.

EUSKARA INDARTZEKO, gure hizkuntzaren udal aitortza eginen dugu, komunikazio elebiduna segurtatuko dugu, lan toponimiko sakona burutuko dugu eta euskararen udal batzordea zabalduko dugu, herriko eragileek parte hartu ahal izan dezaten.

Eta **GARDENTASUN DEMOKRATIKOA** baitezpadakoa izanen da gure egitekoan. Urtero jendaurrean aurkeztu eta azalduko dugu udal aurrekontua eta horren gainean eztabaida gauzatuko dugu, denentzat ulergarria izan dadin eta herritarrek aukera izan dezaten proposamenak egiteko eta parte hartzeko gure herrian hartu behar diren erabakietan.

Laetitia Navarron
Hendaia Biltzeneko
zerrendaburua

Textos en
castellano



LE LOGEMENT : UN ENJEU MAJEUR

À Hendaye, la situation du logement ne correspond plus à la réalité sociale et économique de la population :

70 %

des habitant·es peuvent prétendre à un logement social ou à un logement abordable (location ou accession)

20 %

sont exclus à la fois du logement social et du marché privé

10 %

seulement peuvent accéder au marché privé.

Il devient chaque jour plus compliqué pour les 25–45 ans de s'installer et de rester à Hendaye, pour les familles de vivre toute l'année dans notre commune et pour chacun d'accéder à un logement à prix juste.

NOS PROPOSITIONS

- Investir 2,5 millions d'euros dans des acquisitions foncières afin de maîtriser les projets à venir.
- Réserver certaines parcelles à la résidence principale, conformément à la loi Echaniz – Le Meur.
- Faire appliquer réellement la mesure de compensation et en assurer le suivi.
- Accompagner les propriétaires pour encourager la location à l'année à des loyers abordables.
- Soutenir des projets d'habitat coopératif (type Etxalde).
- Créer un poste municipal dédié au logement, pour piloter et coordonner cette politique.

« Vivre à Hendaye doit rester possible pour toutes et tous. Nous agissons sur le foncier et l'urbanisme pour des logements abordables. C'est notre engagement pour une ville habitée toute l'année ! »

Iker Elizalde
Conseiller Départemental



ETXEBIZITZA: ERRONKA NAGUSIA

Hendaian, etxebizitzaren egoera ez dator bat biztanleen errealitate sozial eta ekonomikoarekin

% 70

-ek etxebizitza sozial edo merke bat eskuratzeko aukera dute (alokairua edo jabetza)

% 20

bai etxebizitza sozialetik bai merkatu pribatutik kanpo daude

% 10

-ak bakarrik lor dezake merkatu pribatuan sartzea

25–45 urte bitartekoentzat gero eta zailagoa da Hendaian bizitzea eta egotea, familientzat urte osoan gure herrian bizitzea eta edonorentzat prezio eskuragarrian etxebizitza lortzea.

GURE PROPOSAMENAK

- 2,5 milioi euro inbestitu lurak erosteko eta etorkizuneko proiektuak kontrolatzeko.
- Lurralde batzuk etxebizitza nagusirako erreserbatu, Echaniz – Le Meur legearen arabera.
- Konpentsazio neurria guztiz aplikatu eta jarraipena segurtatu.
- Jabeak lagundu, prezio eskuragarrietan alokairua sustatzeko.
- Bizitegi kooperatiboko proiektuak babestu, (Etxalde modukoa).
- Etxebizitzaren ardura hartuko duen postu bat sortu herriko etxean, politika hau gidatzeko eta koordinatzeko.

« Hendaian bizitzeak guztientzat posible izaten jarraitu behar du. Lurraldearen eta hirigintzaren alorrean arituko gara, prezio eskuragarrian lortzeko etxebizitzak. Hau da gure engaiamendua gure herria urte osoan bizi dadin bermatzeko! »

Iker Elizalde
Departamenduko kontseilaria

Textos en castellano



RÉINVENTER LA MOBILITÉ

Réduire la pollution liée aux transports ne signifie pas supprimer la voiture, mais repenser son usage.

Il s'agit d'adapter les déplacements aux besoins réels, de donner la priorité aux trajets du quotidien — travail, école, commerces — et de sécuriser les modes de déplacement doux et actifs, comme la marche, le vélo ou la trottinette, grâce à des aménagements clairs et sûrs.

NOS PROPOSITIONS

- Réaliser une **étude globale de circulation et de stationnement**, intégrant les enjeux climatiques, sanitaires et sociaux.
- Mettre en œuvre un **plan de déplacements et de stationnement à l'échelle de la ville**, reliant les quartiers aux écoles, commerces et équipements publics par un réseau structurant de mobilités douces.
- **Repenser le stationnement** pour libérer l'espace public, végétaliser, apaiser les rues et maintenir des solutions adaptées aux résident·es et aux personnes à contraintes spécifiques. Ces choix seront basés sur des données objectives et une concertation réelle avec les habitant·es.
- **Améliorer la voirie** pour une ville plus sûre et plus accessible

Défendre les mobilités douces, ce n'est pas opposer les usages, c'est réinventer notre ville pour tous et toutes. Nous voulons tenir compte des contraintes de chacun·e, accompagner les Hendayais·es avec pédagogie et ajuster nos actions pour que personne ne soit laissé de côté.

Repenser la mobilité, c'est agir concrètement pour réduire l'impact climatique tout en respectant la vie quotidienne, le travail et les obligations familiales. Une enveloppe de 6 millions d'euros est mobilisée pour transformer nos rues et construire une ville plus sûre, plus vivable et plus équitable.

“ Repenser la mobilité à Hendaye, ce n'est pas seulement modifier nos rues et nos trajets, c'est agir concrètement pour toutes et tous, en tenant compte des réalités quotidiennes et construire ensemble une transition écologique qui profite à chacun·e, aujourd'hui et pour les générations à venir.



Céline Cotinat

Ancienne adjointe aux mobilités douces
Élue municipale d'opposition et communautaire

Textos en castellano



MUGIKORTASUNA BERRASMATU

Garraioek sortzen duten kutsadura murrizteak ez du autoa desagerraraztea esan nahi, baizik eta bere erabilera berriz pentsatzea.

Joan-etorriak benetako beharretara egokitu behar dira, eguneroko ibilbideei — lana, eskola, erosketak — lehentasuna emanez eta oinezko, bizikleta eta patinetek bezalako mugikortasun arin eta aktiboak seguru egiteko antolaketa egokiak eginez

GURE PROPOSAMENAK

- **Zirkulazio eta aparkatzeari buruzko azterketa globala egin behar da**, klimaren, osasunaren eta jendartearen alderdiak kontuan harturik.
- **Hiri-mailako joan-etorrien eta aparkatzearen gaineko plana plantan eman**, auzoak, eskolak, saltegiak eta ekipamendu publikoak lotuz, mugikortasun arinen sare egituratu baten bidez.
- **Aparkatzea berrikusi**, espazio publikoa askatu, begetalizatu, karrikak lasaitu eta herritarrentzat eta behar bereziak dituzten pertsonentzat soluzio egokiak atzeman. Hautuak datu objektiboetan oinarrituko dira, bizilagunak entzun ondoren.
- Hiria seguruagoa eta eskuragarriagoa izateko **bide-sarea hobetzea**

Mugikortasun arinak defendatzea ez da erabilerak kontrajarri nahi izatea, baizik eta gure hiria guztiontzat berrasmatzea. Denon beharrak eta mugak kontuan hartu nahi ditugu, hendaierak pedagogiaz lagundu eta gure ekintzak egokitu, inor gibelean utzi gabe.

Mugikortasuna berrikusteak ekintza zehatzak galdegiten ditu, klima eragina murrizteko, eguneroko bizitza, lana eta familiaren betebeharrak errespetatuz. 6 milioi euroko diru zama erabiliko dugu gure karrikak egokitzeko eta hiri seguruago, bizigarriago eta bidezkoagoa eraikitzeko.

“ Hendaian mugikortasuna berrikustea ez da gure karrikak eta joan-etorriak soilik aldatzea; guztiontzat ekintza zehatzak egitea da, eguneroko errealitateak kontuan hartuz eta elkarrekin trantsizio ekologikoa eraikitzea, gaurko eta etorkizuneko belaunaldientzat onuragarria izan dadin.

Céline Cotinat,

Mugikortasun jasangarrirako
auzapezordea ohia, Herriko etxeko
oposizioeko eta elkargoko hautetsia



VÉGÉTALISER AUJOURD'HUI POUR MIEUX VIVRE DEMAIN

Face au dérèglement climatique et à l'artificialisation croissante des sols, **la végétalisation du territoire n'est plus une option, mais une nécessité.** Préserver et développer le végétal en ville permet d'améliorer le cadre de vie et de protéger la santé tant physique que mentale des hendayais et des hendayaises, en favorisant le bien-être et le lien social.

La végétation joue également un rôle essentiel dans l'adaptation climatique : elle crée des îlots de fraîcheur, facilite l'infiltration de l'eau et réduit les risques d'inondation. En captant les polluants atmosphériques, elle contribue aussi à améliorer la qualité de l'air et à préserver la biodiversité locale.

NOS PROPOSITIONS

- **Moleres** : classer le terrain de Moleres en zone agricole dans le futur Plan Local d'Urbanisme intercommunal. Nous souhaitons y encourager le retour d'une production maraîchère locale, destinée notamment à l'approvisionnement des cantines scolaires et des établissements publics de la commune.
- **Végétaliser les espaces publics** : cours d'école, places, bâtiments municipaux, parkings publics et abords des pistes cyclables.

“ **L'étalement urbain a des conséquences majeures sur la biodiversité, la santé humaine et le climat. Végétaliser et déminéraliser Hendaye est essentiel pour construire une ville plus résiliente et agréable à vivre. Une enveloppe financière de 3 millions d'euros sera dédiée à cette ambition.** »

Joseba Manterola



GAUR BEGETALIZATU, BIHAR HOBEKI BIZITZEKO

Klima aldaketaren eta lurzorua artifizializazio gero eta handiagoaren aurrean, **lurraldearen begetalizatzea aukera baino gehiago premiazko neurria da.** Hirietan landaredia babesteak eta garatzeak herritarren bizi kalitatea hobetzen du eta haien osasuna babesten laguntzen du, bai fisikoa bai mentala, ongizatea eta jendarte harremanak sustatuz.


Landarediak funtsezko rola du klima aldaketara egokitzeko: freskotasun uharteak sortzen ditu, uraren infiltrazioa errazten du eta uholde arriskuak murrizten ditu. Aireko kutsatzaileak xurgatuz, airearen kalitatea hobetzen laguntzen du eta tokiko bioaniztasuna babesten eta lehengoratzten laguntzen du.

GURE PROPOSAMENAK

- **Moleres**: Lur saila etorkizuneko Herriarteko Hirigintza Planean (PLUi delakoa) laborantza eremu gisa sailkatu, tokiko barazki produkzioaren itzulera sustatzeko, batez ere eskoletako kantinetako eta udal egituretako hornikuntzarako.
- **Espazio publikoak berdezkatzea**: ikastetxeetako jostalekuak, plazak, udal eraikinak, aparkalekuak eta bizikleta bideetako inguruak.

“ **Hiri hedapenak ondorio handiak ditu bioaniztasunean, pertsonen osasunean eta kliman. Hendaiako espazioak berdezkatzea eta desmineralizatzea ezinbestekoa da hiria erresilienteagoa eta bizitzeko atseginagoa izan dadin. Helburu horri 3 milioi euroko aurrekontua bideratuko diogu.** »

Joseba Manterola



Textos en
castellano



COMBATTRE LA PRÉCARITÉ SOCIALE ET ALIMENTAIRE

Pour aider les Hendayais-es aux plus petits revenus, Hendaia Biltzen mettra en place une épicerie solidaire qui combine alimentation de qualité, apprentissage et partage.

À Hendaye :
18 %

des habitant-es vivent sous le seuil de pauvreté

POURQUOI VOULOIR CRÉER UNE ÉPICERIE SOCIALE ET SOLIDAIRE À HENDAYE ?

De nombreuses personnes — étudiants, travailleurs précaires, familles monoparentales, personnes âgées — disposent d'un reste à vivre très limité. Notre projet vise à augmenter leur pouvoir d'achat, tout en favorisant le lien social. L'épicerie sera un lieu de rencontres et d'échanges, avec des activités culinaires collectives et des ateliers éducatifs sur la nutrition, la gestion du budget et la cuisine. Nous voulons permettre à chacun-e d'accéder à une alimentation de qualité, variée et saine, tout en renforçant la solidarité dans la ville.

COMMENT FONCTIONNERA CONCRÈTEMENT CETTE ÉPICERIE ?

L'accès se fera via les services sociaux, sur critères objectifs liés aux revenus et à la situation familiale, pour une durée déterminée et éventuellement renouvelable. Les bénéficiaires pourront contribuer partiellement aux achats. Une cuisine centrale permettra de préparer des repas à consommer sur place ou à emporter et de répondre aux besoins des écoles, maisons de retraite ou du portage de repas.

EN QUOI CE PROJET SE DISTINGUE-T-IL DES AUTRES DISPOSITIFS EXISTANTS ?

L'épicerie ne se limite pas à distribuer des produits. Elle propose un modèle participatif, éducatif et solidaire. Les ateliers et la cuisine centrale permettent aux bénéficiaires de développer des compétences, de renforcer leur autonomie et de tisser du lien social. C'est un projet inclusif, respectueux de la dignité de chacun-e et bénéfique pour toute la collectivité.

« Notre épicerie solidaire n'est pas seulement un lieu d'aide alimentaire, c'est un espace de partage, d'apprentissage et de solidarité, où chacun-e peut retrouver dignité, autonomie et lien avec la communauté. »



Isabelle Iriarte

JENDARTE ETA ELIKADURA PREKARIETATEARI AURRE EGIN

Zailtasun ekonomikoak dituzten hendaia-arrak laguntzeko, hendaia biltzen-ek epizeria solidarioa sortzea proposatzen du, kalitatezko elikadura, ikaskuntza eta partekatzea uztartzen dituen.

Hendaian,
biztanleen

% 18

pobrezia mailaren azpitik bizi dira

ZERGATIK SORTU NAHI DA SALTEGI SOZIAL ETA SOLIDARIOA HENDAIAN?

Jende askok —ikasleek, langile prekarioek, familia bakarrek, adinekoek— oso baliabide mugatuak dituzte eguneroko bizitzarako. Gure proiektuaren helburua haien eros ahalmena handitzea da, baita harreman sozialak sustatzea ere. Denda hori elkartzeko eta trukatzeko lekua izanen da eta jarduera kolektibo gastronomikoak eta elikadura, aurrekontu kudeaketa eta sukaldaritza lantzen dituzten tailerrak proposatuko ditu. Kalitatezko elikadura askotarikoa eta osasuntsua denentzat eskuragarri izan dadin nahi dugu eta hirian elkartasuna indartu.

NOLA FUNTZIONATZEN DU SALTEGI SOLIDARIO BATEK?

Sarbidea zerbitzu sozialen bidez lortuko da, diru sarrerei eta familia egoerari lotutako irizpide objektiboen arabera, denbora zehatz batez eta, behar izanez gero berritu daitekeena. Hartzaileek erosketetan parte hartzeko parada izango dute. Sukalde zentral batek janariak prestatzen ahalko ditu bertan kontsumitzeko edo eramateko, eskolen, zahar etxeen edo janari banaketa zerbitzuen beharrak asetzeko.

ZEIN BERRITASUN DAKAR PROIEKTU HONEK INDARREAN DAUDEN BESTE EKIMENEKIN ALDERATUTA?

Saltegia ez da produktuak banatzera soilik mugatzen. Parte hartze, hezkuntza eta eredu solidarioa proposatzen ditu. Tailerrek eta sukalde zentralak aukera ematen diete hartzaileei trebetasunak garatzeko, autonomia indartzeko eta harreman sozialak eraikitzeko. Proiektu inklusiboa da, denon duintasuna errespetatzen duena eta komunitate osoarentzat onuragarria.

« Gure epizeria solidarioa ez da soilik elikagai laguntzarako leku bat; partekatze, ikaskuntza eta elkartasun espazioa da, non denek duintasuna, autonomia eta komunitatearekin lotura berreskuratu baitezakete. »

Isabelle Iriarte

Textos en
castellano



LUTTE CONTRE TOUTES LES FORMES DE DISCRIMINATIONS

La précarité fragilise les parcours de vie, accentue les inégalités et favorise les discriminations. À Hendaye :

10 % souffrent d'isolement relationnel, géographique ou d'un éloignement des systèmes de santé

Face à ces réalités, notre responsabilité collective est d'agir pour garantir la dignité, l'égalité et l'inclusion de toutes et tous.

NOS PROPOSITIONS

- **Renforcer la lutte contre la précarité** en consolidant les dispositifs existants, en appui au CCAS et en créant une épicerie/cuisine sociale. À l'échelle de la Communauté d'Agglomération Pays Basque, porter un projet de Sécurité sociale de l'alimentation.
- **Développer les liens intergénérationnels**, le soutien social est un levier majeur de bien-être : événements partagés, « bancs de bavardage », goûters, spectacles communs et mettre en place une navette municipale pour rompre l'isolement et faciliter l'accès aux services et aux soins.
- **Renforcer la lutte contre les violences faites aux femmes, les violences intrafamiliales et les addictions**, en soutenant les associations et en augmentant les logements d'urgence en lien avec le 115.
- **Appliquer la charte des villes 100 % inclusives** pour les personnes en situation de handicap et **soutenir les aidant-es** (accueils temporaires, groupes de parole).
- **Créer un observatoire municipal de l'égalité femmes-hommes.**

“ Notre engagement est clair : faire d'Hendaye une ville solidaire, inclusive et protectrice, où chacune et chacun trouve sa place. »

Ixa Eguiazabal

Textos en castellano



DISKRIMINAZIO MOTA GUZTIEN KONTRAKO BORROKA

Prekariatateak bizimodua ahultzen du, desberdintasunak handitzen ditu eta diskriminazioa sustatzen du. Hendaian :

% 10 harremanetan, geografikoki edo osasun zerbitzuetatik urruntzeagatik isolamendu egoeran daude

Egoera hauen aurrean, gure ardura kolektiboa da denen duintasuna, berdintasuna eta inklusioa bermatzea.

GURE PROPOSAMENAK

- **Prekariatatearen kontrako borroka indartu**, indarrean diren ekimenak sendotuz, GEUZren laguntzarekin eta epizeria/sukalde sozial bat sortuz. Euskal Hiri Elkargoaren mailan, elikaduraren gizarte segurantza garatu.
- **Belaunaldiarteko loturak garatu**; laguntza soziala ongizatearen oinarria da: ekitaldi partekatuak, “kalaka lekuak”, krakadak, antzerkiak eta udal garraioa plantan ezarri zerbitzuetara eta osasun gunetarako iristeko eta isolamendua hausteko.
- **Emazteenganako indarkeriaren, etxe barneko indarkeriaren eta menpekotasunen kontrako borroka indartu**, elkarteak babestuz eta larrialdi etxebizitzak emendatuz 115 zerbitzuetarekin elkarlanean.
- **Elbarritasun egoeran dauden pertsonentzat % 100 inklusiboak** diren hirien karta aplikatu eta **zaintzaileak lagundu** (aldi baterako harrera, solasaldi taldeak).
- **Emazte-gizonen berdintasunaren udal behatokia** sortu.



“ Gure engaiamendua argia da: Hendaia hiri solidario, inklusibo eta babes emaile bihurtzea, bertan denek lekua izan dezaten. »

Ixa Eguiazabal

COLISTIER·ES

ELECTIONS MUNICIPALES

15-22 mars 2026

ZERRENDAKIDEAK

HERRI HAUTESKUNDEAK

2026ko martxoak 15-22



LAETITIA NAVARRON

39 ans/urte
Professeure des écoles
Eskoletako irakaslea



IKER ELIZALDE

47 ans/urte
Conseiller Départemental
Departamenduko kontseilaria



CÉLINE COTINAT

33 ans/urte
Auto entrepreneuse
Auto ekintzailea



**PAULO ARZELUS
ARAMENDI**

57 ans/urte
Enseignant / Irakaslea



CLAIRE LEGARDINIER

60 ans/urte
Aide à domicile
Etkez etxeko laguntzailea



JEAN-MICHEL GARAYAR

68 ans / urte
Retraité
Erretiratua



IXA EGUIAZABAL

60 ans / urte
Infirmière
Erizaina



JOSEBA MANTEROLA

57 ans / urte
Agent territorial
Lurraldeko agentea



ISABELLE IRIARTE

49 ans / urte
Aide à domicile
Etkez etxeko laguntzailea



**XABI MARTIARENA
GARAT**

38 ans / urte
Marin pêcheur / Arrantzalea



**KRISTINA
MENTA SAN MIGUEL**

49 ans / urte
Veilleuse de nuit / Gaueko zaindaria



FRANK GELEDAN

57 ans / urte
Educateur sportif
Kirol hezitzailea



ALAZNE HADOUELHADJ

69 ans / urte
Retraîtée
Erretiratua



MARKOTX ELUSTONDO

46 ans / urte
Coordinateur
Koordinatzailea



ITZIAR VARELA

57 ans / urte
Technicienne de
l'information médicale
Informazio medikoko teknikaria



**IÑIGO LOUIS
HURTADO LANZA**

40 ans / urte
Capitaine de Marine marchande
Merkataritzako itsas ontziko kapitaina



AINTZANE LASARTE

68 ans/urte
Médiatrice culturelle
Kultura bitartekaria



**MOUNIR ED DEBBAR
KASBAOUI**

45 ans/urte
Agent postier / Postaria



NATHALIE PELAGE

64 ans/urte
Retraitée
Erretiratua



REMI BERNIS ARRUYER

36 ans/urte
Enseignant
Irakaslea



PASCALE POUYFAUCOU

65 ans/urte
Commerciale logistique transport
Garraio-logistikako komertziala



PAXKAL OXANDABARATZ

56 ans/urte
Responsable d'agence
Agentziako arduraduna



XANTIANA CACHENA

47 ans/urte
Avocate
Abokatua



XAN BERASATEGI

59 ans/urte
Enseignant
Irakaslea



**GANA
SALLABERRY-MOLLE**

36 ans/urte
Psychologue / Psikologoa



JAMES TAYLOR

50 ans/urte
Étudiant
Ikaslea



**ONEKA
JAUREGI MIQUELARENA**

31 ans/urte
Ingénieure informatique
Informatika ingeniaria



ALLENDE PRADA

19 ans/urte
Étudiant
Ikaslea



ARANTZA EGUIGUREN

25 ans/urte
Chargee de mission
Misio kargaduna



**AITZOL
GIL DE SAN VICENTE PLA**

23 ans/urte
Étudiant / Ikaslea



**GURUTZE ARRONDO
ECHABE**

58 ans/urte
Enseignante / Irakaslea



**OIER QUERENDEZ
JAUREGUBEITIA**

51 ans/urte
Professeur des écoles
Eskoletako irakaslea



**MARIE-JOSÉ
LECUONA CAUBET**

71 ans/urte
Retraitée / Erretiratua



RAYMOND PARTIE

77 ans/urte
Retraité
Erretiratua



**LOHITZUNE TXAROLA
GURRUTXAGA**

48 ans/urte
Directrice générale
Zuzendari nagusia

FAIRE VIVRE L'EUSKARA

À Hendaye, l'euskara est une langue vivante, ancrée dans l'histoire et le quotidien du territoire. Maintenir et développer son usage dans la ville est un enjeu culturel, social et démocratique majeur. Il s'agit de **protéger notre patrimoine linguistique, culturel et onomastique**, tout en veillant à ce que l'euskara reste un **facteur d'ouverture et de partage et jamais d'exclusion**.

La transmission de la langue concerne l'ensemble de la population : élèves des écoles, nouveaux et nouvelles habitant-es, commerçant-es, associations, monde sportif et culturel. Sensibiliser largement à ce patrimoine commun est indispensable pour en assurer l'avenir.

NOS PROPOSITIONS

- Reconnaître pleinement l'euskara au niveau municipal et assurer une **communication bilingue paritaire français-basque** dans l'ensemble des services, supports et communications de la Ville.
- Créer une **commission municipale élargie**, associant élu-es, associations et partenaires, afin de travailler en réseau au développement de la langue.
- **Encourager l'usage de l'euskara dans les domaines associatif, sportif et socio-économique**.
- Soutenir le **modèle immersif dans l'éducation**, pilier essentiel de la transmission et renforcer parallèlement **l'enseignement de l'euskara aux adultes**.
- Mener un travail de sensibilisation auprès des publics non bascophones
- Réaliser un **travail toponymique** exhaustif sur la commune.

L'euskara est, aux côtés du français, la langue du territoire. Il appartient à toutes et tous les Hendayais, bascophones ou non et constitue un outil d'intégration et de cohésion.

Son avenir reste fragile : avec 20 % de locuteur-rices aujourd'hui, atteindre le seuil de 30 % d'ici 2050, nécessaire à sa survie selon l'UNESCO, est un objectif collectif indispensable.

“ L'euskara n'est pas seulement une langue : c'est le lien vivant avec notre territoire et notre histoire. À Hendaye, nous voulons la transmettre, la partager et la faire vivre pour toutes et tous, aujourd'hui et demain. »

Paulo Arzelus Aramendi
Élu municipal d'opposition et
communautaire



EUSKARA BIZIARAZI

Hendaian, euskara hizkuntza bizia da, lurraldearen historian eta eguneroko bizian finkatua. Hiri barneko erabilera mantendu eta garatzea erronka kultural, sozial eta demokratiko nagusia da. **Gure ondare linguistiko, kultural eta onomastikoa babestu behar dugu**, betiere **zabaltzearen eta partekatzearen faktore izaten jarrai dezan euskarak eta ez bazterkeria tresna**.

Hizkuntza transmisioa herritar guztiei dagokie: eskola ikasleei, bizilagun etorri berriei, saltzaileei, elkartei, kirol eta kultura munduari. Ondare komun honen gainean sentsibilizatzea ezinbestekoa da etorkizuna bermatzeko.

GURE PROPOSAMENAK

- Euskararen udal aitortza egin eta **komunikazio elebidun parekidea bermatu, euskara-frantsesa**, Herriko etxeko zerbitzu, euskarri eta komunikazio guztietan.
- **Udal batzorde zabaldua eratu, hautetsiak, elkarteak eta eragileak sarean lan egiteko euskararen garapenean**.
- **Euskara sustatu elkarte, kirol talde eta alor sozioekonomian**.
- **Murgiltze eredia babestu hezkuntzan**, transmisioaren zutabe nagusia baita eta **helduen euskara irakaskuntza indartu**.
- Kontzientziazio lana egin ez-euskaldunei begira.
- **Herrian lan toponimiko sakona** burutu.

Euskara, frantsesaren ondoan, lurraldearen hizkuntza da. Hendaian guztien ondarea da, euskaldunak izan edo ez eta integrazio eta kohesio faktorea da.

Bere etorkizuna oraindik ahula da: gaur egun euskaldun tasa % zokoa da; UNESCOk dioenez, hizkuntza bat bizirauteko gutienez % 30eko tasa behar du. 2050ean maila horretara iristia helburu kolektibo ezinbestekoa da.

“ Euskara ez da hizkuntza hutsa: gure lurralde eta historiarekiko lotura bizia da. Hendaian, gure hizkuntza transmititu, denekin partekatu eta biziarazi nahi dugu, gaur eta beti.

Paulo Arzelus Aramendi
Herriko etxeko oposizioko eta elkargoko
hautetsia

Textos en
castellano



TRANSMETTRE, CRÉER, RASSEMBLER

La culture et l'éducation sont des piliers du vivre-ensemble et de l'avenir de notre ville. Nous devons adapter nos politiques à l'évolution démographique et garantir un accès équitable à une offre culturelle et éducative de qualité, pour tous les âges et toutes les sensibilités.

NOS PROPOSITIONS

- Encourager la (re)formation d'un comité des fêtes pour permettre aux jeunes de s'investir pleinement dans la vie de la cité.
- Engager une réflexion approfondie sur la politique culturelle, en concertation avec les programmeurs, les artistes et les associations.
- Réaliser un état des lieux des infrastructures et du service et, si nécessaire, réaménager l'organisation de la Culture. Garantir une programmation familiale, inclusive et accessible. Définir des critères clairs et transparents pour l'attribution des subventions.
- Intégrer pleinement l'euskara dans les activités périscolaires et extrascolaires.

Nous voulons une politique culturelle et éducative cohérente, construite avec les acteurs locaux, favorisant la création, la transmission et l'égalité des chances. Investir dans la culture et l'éducation, c'est préparer l'avenir de nos enfants et de notre société et renforcer le lien social à Hendaye.

TERRAIN SYNTHÉTIQUE & ÉCOLOGIQUE

A Hendaye, le Club de football les Eglantins est un club important de 500 licencié-es, mais les terrains actuels ne suffisent pas : le stade de Sopite n'est pas adapté et devient trop souvent impraticable.

NOTRE PROPOSITION

- Investir dans une pelouse synthétique écologique sur le terrain actuel de Sopite, pour un coût estimé à 1,8 million d'euros.

Cet investissement garantira deux terrains toujours praticables, adaptés au foot à 8 et au foot à 11.

Il permettra également de réaliser des économies d'entretien significatives (tonte, arrosage, engrais et traitements chimiques). Autre avantage écologique : la pelouse synthétique est durable et recyclable.

“Équiper, adapter et développer nos installations sportives, c'est répondre aux besoins et accompagner le développement de nos clubs de sport.

Jean-Michel Garayar



TRANSMITITU, SORTU, BILDU

Kultura eta hezkuntza elkarbizitzaren eta gure herriaren etorkizunaren oinarri dira. Gure politikak bilakaera demografikora egokitu behar ditugu. Aldi berean, herritar guztiei bermatu behar diegu kultura eta hezkuntza eskaintza kalitatezkoa eta eskuragarria, adin eta sentsibilitate desberdinak kontuan hartuz.

GURE PROPOSAMENAK

- Besta komitea (berr)abiaraziko dugu, gazteei aukera emanaz herriko bizian esku hartzeko.
- Kultur politikaren gaineko hausnarketa sakona egingen dugu, programatzaile, sortzaile, artista eta elkarteekin batera.
- Azpiegitura eta zerbitzuari buruzko gogoeta egingen dugu eta, beharrezkoa bada, Kulturaren antolaketa moldatuko dugu. Familientzako kultur programazio inklusibo eta eskuragarria segurtatuko dugu. Dirulaguntzak esleitzeko irizpide argi eta gardenak ezarriko ditugu.
- Euskara guztiz txertatuko dugu eskolaldiaren inguruko eta eskolaz kanpoko jardueretan.

Kultur eta hezkuntza politika koherentea nahi dugu, tokiko eragileekin batera eraikia, sormena, transmisioa eta aukeren berdintasuna bultzatuko dituen. Kulturaren eta hezkuntzaren inbestitzeak gure haurren eta jendartearen etorkizuna bideratzen laguntzen du eta lotura sozialak indartzen ditu Hendaian.

ZELAI SINETIKO ETA EKOLOGIKOAK

Hendaiako Eglantins futbol kluba elkarte garrantzitsua da; 500 lizentziadun ditu. Alta, egungo futbol zelaiek ezin diete beharrei erantzun: Zopiteko estadioa ez da egokia eta maiz ezin da erabili.

GURE PROPOSAMENAK

- Belardi sintetiko eta ekologiko bat ezarri behar da Zopiteko egungo zelaian; horretarako 1,8 milioi euroko kostua aurreikusten dugu.

Inbestimendu honek bi futbol zelai erabilgarri segurtatuko ditu momentu oro, 8 eta 11 futbolariko taldeentzat. Mantenu gastuak arinduko dira, ez baita belarra moztu behar, ezta ureztatu ere. Abantaila ekologiko gehiagarriak: ongarrien beharrik ez dago eta belardia iraunkorra eta, ondoren, birziklagarria da.

“Herriko kirol instalakuntzak egokitu eta garatzeak gure kirol klubek beharrei erantzuten die eta haien garapena laguntzen du.»

Jean-Michel Garayar

Textos en castellano



UNE SÉCURITÉ HUMAINE ET EFFICACE

À Hendaye, le sentiment d'insécurité est réel et ne peut être ignoré. Notre approche refuse la démagogie et le populisme, tout en exigeant de l'État qu'il assume pleinement ses responsabilités dans la lutte contre la délinquance, qu'il s'agisse des vols à domicile ou du trafic de drogue. Nos propositions se veulent réalistes et efficaces, adaptées aux besoins du terrain, aux compétences de la municipalité et aux capacités financières de la ville.

NOS PROPOSITIONS

- **Définir clairement les missions de la police municipale** pour faire respecter les décisions de la ou du Maire et du conseil municipal.
- **Placer la police municipale au service des Hendayais-es et de la ville**, par exemple pour le respect de la ville 30 ou des autorisations d'occupation temporaire (AOT) des écoles de surf.
- **Exiger de l'État qu'il assume ses responsabilités** en matière de lutte contre la délinquance, compétence régaliennne, plutôt que de se concentrer sur la chasse aux migrants et migrantes.
- **Réaliser un bilan d'impact des caméras de vidéoprotection** pour évaluer leur efficacité en prévention et en résolution des délits avant tout nouveau déploiement.
- **Prendre en compte le coût des dispositifs**, qui impacte le budget de fonctionnement et agir de manière responsable, sur la base de faits objectifs et non d'effets de communication.
- **Continuer de s'appuyer sur le CLSPD et réfléchir à la mise en place d'un CLSM** (santé mentale) pour associer les partenaires (polices/soignants) et mettre en place des protocoles efficaces.

Nous agissons sur trois niveaux : compétences, efficacité et coût. Avant toute décision ou tout déploiement de nouvelles mesures, nous travaillerons à définir les missions de la police municipale en concertation avec les agent-es et à évaluer l'efficacité des caméras de vidéoprotection, tant pour la dissuasion que pour la résolution des délits.

“ Sécurité à Hendaye : agir avec réalisme, efficacité et détermination, en responsabilisant l'État et en plaçant la police municipale au service des hendayais et hendayaises. »

Laetitia Navarron
Élue municipale d'opposition
et tête de liste Hendaia Biltzen



SEGURTASUN ALOR HUMANO ETA ERAGINKORRA

Hendaian, segurtasun ezaren pertzepzioa egiazkoa da eta ezin dugu ezikusiarena egin. Gure ikusmoldeak, aldiz, demagogia eta populismoa baztertzen ditu. Estatuari fermuki galdegiten diogu bereak diren ardurak har ditzala delinkuentziaren alorrean, esaterako, etxeetako lapurketak edota droga trafikoa. Gure proposamenak errealistak eta eraginkorrak dira, tokiko beharrei zein herriko etxearen eskumenei egokitutakoak eta gure herriko gaitasun finantzarioa kontuan hartzen dutenak.

GURE PROPOSAMENAK

- **Herrizaingoaren misioak argiki definitu**, auzapezaren eta herriko kontseiluaren erabakiak betearazteko.
- **Herrizaingoa hendaiarren eta herriaren zerbitzura ezarri**, hala nola 30 km/h-ko hiria edota aldi baterako eremu publikoaren okupazioa (adibidez surf eskolak) errespetarazteko.
- **Estatuari exijitzen diogu bereak diren ardurak har ditzala** delinkuentziaren alorrean, migrantean ehizan ibili beharrean.
- **Bideozaintza kameran gaineko bilana burutu behar da**, sistema horren eraginkortasuna neurtzeko delituen prebentzio eta konponbidean. Hori egin arte ez dugu kamera sistema hedatzen segituko.
- **Kontuan hartu gailu horien kostua**, zuzeneko eragina baitute funtzionamendurako aurrekontuan. Modu arduratsuan aritu behar dugu, elementu objektiboen gainean eta ez kolpe komunikatiboen inguruan.
- **CLSPD delikuentzia prebentziorako batzordearen inguran lanean segitu eta CLSM osasun mentalerako batzorde baten beharraz gogoetatu**, elkarlanean aritu ahal izateko eragileak (poliziak/zaintza emaileak) eta plantan ezarri protokolo eraginkorrak.

Hiru mailatan arituko gara gai honetan: eskumenak, eraginkortasuna eta kostua. Edozein neurri berri hartu aitzin, lehenik herrizaingoaren misioak argituko ditugu, herrizainekin beraiekin elkarlanean eta bideozaintzaren kameran eraginkortasuna aztertuko dugu, bai prebentzioaren alorrean, bai delituen konponbidearenean.

“ Segurtasuna Hendaian: errealismoz eta eraginkortasunez aritu, Estatuari haren ardurak eman ez eta herrizaingoa hendaiarren zerbitzura ezarri. ”

Laetitia Navarron
Herriko etxeko oposizioko hautetsia
et Hendaia Biltzeneko zerrendaburua

Textos en castellano



FAIRE VIVRE HENDAYE TOUTE L'ANNÉE

Les enjeux

- ↳ **Maintenir et accompagner les commerçants.**
- ↳ **Renforcer le caractère industriel et artisanal** des zones d'activité économique des Joncaux et de Dorrondegi.
- ↳ **Maintenir et développer les activités de maintenance et de réparation de bateaux.**
- ↳ **Développer et accompagner une offre professionnelle concernant l'activité touristique** et promouvoir notre attractivité territoriale.

NOS PROPOSITIONS

- ↳ **Accompagner l'installation de nouveaux commerces** avec une participation financière de la commune les deux premières années.
- ↳ **Désigner des représentant-es des commerçant-es par quartier** afin de répondre au mieux aux problématiques du quotidien : stationnement, animation, promotion.
- ↳ **Accompagner et soutenir les initiatives des commerçant-es en matière d'animation.**
- ↳ **Evoluer vers une gouvernance unique de la zone d'activité du port** pour gagner en efficacité et visibilité.
- ↳ **Investir et outiller la zone d'activité économique du port** avec une aire de carénage abritée, un port à sec, une pêcherie...
- ↳ **Classer des zones dans le futur PLUI à vocation hôtelière.**
- ↳ **Promouvoir Hendaye comme le cœur de l'eurocité Bayonne-Donostia.**
- ↳ **Anticiper une évolution de l'EPIC (Établissement Public Industriel et Commercial) pour renforcer HENDAYE COMMERCE.**

Ce qu'il faut retenir

- ↳ **Un accompagnement des commerçant-es au quotidien par des propositions concrètes.**
- ↳ **Une évolution de la zone d'activité du port vers une gouvernance unique** et une orientation assumée pour maintenir et développer les activités de réparation et de maintenance de bateaux.
- ↳ **Réaffirmer et renforcer le caractère industriel et artisanal** des zones d'activité économique des Joncaux et de Dorrondegi.


“ **Soutenir nos commerces et nos artisans, c'est préserver l'âme de Hendaye et créer des opportunités pour toutes et tous.** »

Claire Legardinier

Ancienne adjointe à l'économie sociale et solidaire / Élu(e) municipale d'opposition



URTE OSOAN BIZIARAZI HENDAIA



Erronkak

- ↳ **Merkatariak babestu eta lagundu**
- ↳ Intzura eta Dorrondegiko jarduera ekonomikoko eremuetan **ofiziale eta industria izaera sustatu.**
- ↳ **Itsasontzien mantenu eta konponketa jarduerak atxiki eta garatu.**
- ↳ **Jarduera turistikoaren inguruko eskaintza profesionala garatu eta lagundu** eta gure lurralde erakargarritasuna sustatu.

GURE PROPOSAMENAK

- ↳ **Saltegi berriak ireki daitezzen bultzatu**, herriko etxeak lehen 2 urtean laguntza finantzarioa emanaz.
- ↳ **Merkatarien ordezkariak izendatu auzoz auzo**, eguneroko arazoei hobeki erantzun ahal izateko: aparkatzea, animazioa, sustapen lanak.
- ↳ **Merkatarien ekimenak animazioaren alorrean lagundu.**
- ↳ **Portuko jarduera ekonomikoko gunea gobernantza bakarreko eredu bilakatu**, eraginkortasuna eta ikusgarritasuna irabazteko.
- ↳ **Portuko jarduera ekonomikoko gunean inbestitu eta tresnak ezarri**: itsasontziak idorrean konpontzeko gunea aterpetua, idorreko portua, arrantza gunea...
- ↳ **Ondoko herriarteko hirigintza planean hotel eta ostalari gunek sailkatu.**
- ↳ **Hendaia Baiona-Donostia eurohiriaren erdigune gisa sustatu.**
- ↳ **EPIC delakoaren bilakaera aurreikusi** Hendaia Merkataritza indartzeko.

Gogoan atxiki beharrekoa

- ↳ **Merkatariak egunerokoan lagundu proposamenak eginez.**
- ↳ **Portuko jarduera ekonomikoko gunea gobernantza bakarrera eraman** eta itsasontzien mantenu eta konponketaren aldeko indarra egin.
- ↳ Intzura eta Dorrondegiko **jarduera ekonomikoko eremuetan ofiziale eta industria izaera baieztatu.**

“ **Gure merkatariak eta ofizialeak sustatzeak Hendaiaiko arima babesten du eta denetzako aukerak sortzen ditu.** »

Claire Legardinier

Ekonomia sozial eta solidarioko auzapezordea ohia

Herriko etxeko oposizioko hautetsia

Textos en castellano



VALORISER LES PERSONNELS DE LA VILLE ET DU CCAS

À Hendaye, plus de 350 agents exercent plus de 40 métiers au sein de la ville et du CCAS : aide à domicile, comptable, jardinier-ère, conducteur-riche de car, animateur-riche périscolaire, électricien-ne, puériculteur-riche, chargé-e d'accueil, aide-soignant-e, mécanicien-ne... Tous contribuent au service de la population.

Revaloriser ces métiers, reconnaître les compétences et responsabilités et promouvoir l'égalité, la reconnaissance collective, l'intelligence collective et la transparence démocratique sont essentiels pour une organisation juste et collaborative.

NOS PROPOSITIONS

- **Améliorer la qualité de vie au travail** dans un cadre concerté et négocié.
- **Réduire de 7 à 6 groupes de métiers** pour mieux valoriser les agents de terrain.
- **Instaurer des critères d'évaluation égaux** pour responsabilité, technicité et sujétion.
- **Investir dans la formation professionnelle** pour actualiser les compétences et développer les aptitudes managériales.
- **Mettre en place une promotion interne claire et transparente**, accessible à toutes et tous.

Les personnels servent l'intérêt général. La réouverture du régime indemnitaire (RIFSEEP) se fera avec les représentant-es du personnel et les syndicats, dans un esprit d'équité, de dialogue et de transparence. La réduction de 7 à 6 groupes permettra de mieux reconnaître l'engagement, l'expertise et les responsabilités de chacun-e, tout en garantissant des décisions concertées.

TRANSPARENCE DÉMOCRATIQUE LE BUDGET, UNE AFFAIRE DE TOUTES ET TOUS

Le budget de la ville sert à financer divers projets qui touchent notre quotidien : voirie, écoles, logement, infrastructures, solidarités. **Nous voulons que chaque Hendayais et chaque Hendaysaise puisse savoir comment sont réalisés les choix budgétaires par les élu-es et avoir la possibilité de soumettre des propositions.** Cela demande des informations claires, des explications compréhensibles et des moments de discussion ouverts. **Nous nous engageons à organiser une réunion publique annuelle de présentation du budget** avec la possibilité pour les Hendayais et les Hendaysaises d'exprimer leur avis et de soumettre des propositions.

HERRIKO ETA GEUZ-EKO LANGILEAK BALIOETSI

Hendaian, herriko 350 langile baino gehiago 40 lanbidetan aritzen dira, herriko etxearen nahiz Gizarte Ekintzarako Udal Zerbitzuaren baitan: etxez etxeko laguntzaileak, kontulariak, baratzezainak, autobus gidariak, eskolaldiaren inguruko animatzaileak, elektrikariak, haurtzainak, harrera arduradunak, eri laguntzaileak, mekanikariak... Denak herritarren zerbitzurako lanean.

Lanbide horiek guztiak balioetsi behar dira, haien gaitasun eta ardurak aitortuz eta berdintasun eta ezagutza kolektiboa sustatuz. Adimen kolektiboa eta gardentasun demokratikoa baiezpadaoak dira antolaketa zuzen eta partekatuan.

GURE PROPOSAMENAK

- **Lanean bizi kalitatea hobetu**, elkar aditze eta negoziazioan oinarrituz.
- **Lanbide multzoak 7tik 6ra gutitu**, egoitza kanpoko lanbideak hobeki balioetsi.
- **Ebaluazio irizpide parekideak plantan ezarri**, ardura, teknikasun eta menpekotasunari dagokienez.
- **Lanbide formakuntzan inbestitu**, trebetasunak eguneratzeko eta antolaketa gaitasunak garatzeko.
- **Denei irekia zaien barne mailaz goratzeko prozesua plantan ezarri**, modu garden eta eskuragarri batean.

Herriko langileek interes orokorraren alde egiten dute lan. Indemnizazio erregimenaren (RIFSEEP delakoa) aplikazioa langile zein sindikatuen ordezkariekin batera eginen da, berdintasun elkarrizketa eta gardentasun giro batean. Lanbide multzoak 7tik 6ra apaltzeak langileen engaiamendu, trebetasun eta ardurak hobeki aitortzeko balioko du, betiere erabaki partekatuak hartzea bermatuz.

GARDENTASUN DEMOKRATIKOA AURREKONTUA, GUZION AFERA

Herriko aurrekontuak gure egunerokotasuna hunkitzen duten zenbait proiektu finantzatzeko balio du: bideak, eskolak, etxebizitzak, azpiegiturak, elkartasun neurri eta egiturak. **Hendaian bakoitzak aurrekontu hauak nola erabakitzen diren jakin dezan nahi dugu, baita proposamenak egiteko aukera eman ere.** Horrek argibide zehatz eta zuzenak ematea eskatzen du, baita gogoetarako irekiak diren momentuak bermatzea ere. **Gu engaiatzen gara urtero bilkura publiko bat egitera, aurrekontua aurkezteko.** Aukera emanen diegu hendaierrei haien iritzia jakinarazteko eta proposamenak egiteko.

Textos en castellano



TXINGUDI

Hendaye s'inscrit dans un bassin de vie « transfrontalier », dénommé Txingudi ; cela représente une échelle supplémentaire d'enjeux dont nous devons nous saisir, que ce soit dans les domaines environnemental, universitaire ou économique.

- Renforcer le lien associatif concernant les mobilités douces.
- Prévoir une étude environnementale et d'impact au sujet de l'aéroport.
- Relancer les travaux sur le diagnostic alimentaire de territoire.
- Renforcer les liens entre Laneko et Bidasoa Activa, notamment concernant le statut des travailleuses et travailleurs transfrontalier-res.
- Se saisir des outils tels que la plateforme EMPLEO et l'observatoire pour le développement socio-économique durable d'Euskal Herria GAINDEGIA.

CONTRIBUTION À LA CAPB

Ces élections sont municipales et communautaires : nous voterons aussi pour 7 des 232 conseiller-es communautaires du Pays Basque. Sur le bulletin, 9 candidat-es seront fléchés-es et 7 seront élu-es selon le résultat de chaque liste. Pour un Pays Basque plus juste, solidaire et durable, nous défendrons :

LOGEMENT • Réserver dans les PLUi des zones pour les résidences principales et renforcer l'EPFL Pays Basque pour acquérir du foncier et produire des logements abordables.

EAU • Garantir un service de qualité avec des stations d'épuration efficaces, la gratuité des 15 premiers m³ par personne, un tarif modéré pour les 15 m³ suivants et une tarification progressive au-delà.

MOBILITÉS • Demander au conseil régional le transfert de la compétence RER pour développer une politique de mobilité au quotidien à l'échelle du Pays Basque, avec une offre globale inspirée de la "Mugi txartela".

EUSKARA • Faire vivre la langue basque : généralisation de l'enseignement en euskara, services bilingues dans les crèches et accueils de loisirs et co-officialisation de la langue.

ENSEIGNEMENT SUPÉRIEUR ET RECHERCHE
Construire des parcours complets entre établissements du Pays Basque Nord et Sud et harmoniser les inscriptions pour faciliter la mobilité étudiante transfrontalière.

LUTTE CONTRE LA PRÉCARITÉ • Mettre en place une sécurité sociale de l'alimentation pour que toutes et tous aient accès aux droits essentiels et vivent dans la dignité.

TXINGUDI

Hendaia Txingudi izeneko mugaz gaindiko eskualdean dago kokatua. Horrek erronka maila gehiagarria dakarkigu eta horretaz baliatu beharra dugu, ingurune, unibertsitate nahiz ekonomia arloan.

- Elkarre munduko loturak indartu, batez ere, mugikortasun eztienguruan.
- Aireportuari buruzko ingurune eta inpaktu ikerketa egin.
- Lurraldeko elikaduraren gaineko diagnostikoaren lanak berriz abiarazi.
- Laneko eta Bidasoa Bizirik egituren arteko harremanak indartu, batez ere mugaz gaindiko langileen estatutuaren inguruan.
- EMPLEO egitura edota GAINDEGIA Euskal Herriko behatoki sozioekonomikoa bezalako tresnak baliatu.

EUSKAL ELKARGOARI EKARPENEA

Hauteskunde hauek herri mailakoak izateaz gain, Elkargorako bozak ere badira: Ipar Euskal Herriko 232 hautetsietatik 7 hautatuko ditugu Hendaian. Bozka paperean 9 hautagai Elkargorako hautatzen ahalko dira eta horietatik 7k lortuko dute ordezkartza, zerrenden emaitzen arabera. Euskal Herria justu, solidario eta iraunkorra izan dadin, hau da proposatzen duguna:

ETXEBIZITZA • Herriarteko hirigintza planean lehen etxebizitzarako eremuak definitu eta EPFL erakundea indartu lurra erosi eta etxebizitza eskuragarriak eraikitzeko.

URA • Kalitatezko zerbitzua eta araztegi eraginkorrak bermatu. Ur kontsumoaren lehen 15 m³ urrik proposatu, ondoko 15 m³ neurrizko prezioan eta ondokoak prezio progresiboan.

MUGIKORTASUNAK • Kontseilu Erregionalari RER trenaren eskumena galdegin, egunerokotasuneko mugikortasuna garatzeko Euskal Herri mailan, Mugi txartelean inspiratutako eskaintza oso baten inguruan.

EUSKARA • Gure hizkuntza biziari: euskararen irakaskuntza orokortu, zerbitzu elebidunak segurtatu hartzaindegi eta aisialdi harreran eta euskararen koofizialtasuna.

GOI HEZKUNTZA ETA IKERKETA • Ipar eta Hego Euskal Herriko erakundeen arteko curriculum osoak eraiki. Izen emateak harmonizatu mugaz gaindiko ikasleen mugikortasuna errazteko.

PREKARITATEAREN KONTRAKO BORROKA
Elikaduraren gizarte segurantzaren plantan ezarri, oinarritzko eskubideak denon eskura egon daitezkeen, denak duintasunez bizi daitezkeen.

Textos en
castellano





A LA RENCONTRE DES HENDAYAIS·ES

HENDAIARREKIN HITZORDUAK

Lundi 2 mars • 17:00-20:00
Martxoak 2 astelehena
DONGOXENIA

Mardi 3 mars • 17:00-20:00
Martxoak 3 asteartea
PLAGE - HONDARTZA

Jeudi 5 mars • 17:00-20:00
Martxoak 5 osteguna
ORIO

Vendredi 6 mars • 17:00-20:00
Martxoak 6 ostirala
PARC IRANDATZ PARKEA

Samedi 7 mars • 10:00-12:30
Martxoak 7 larunbata
BAS QUARTIER
HARRIXABALETA

Lundi 9 mars • 17:00-20:00
Martxoak 9 astelehena
JONCAUX - INTZURA

Mardi 10 mars • 17:00-20:00
Martxoak 10 asteartea
MOLERES

Jeudi 12 mars • 17:00-20:00
Martxoak 12 osteguna
GARE - GELTOKIA

Vendredi 13 mars • 17:00-20:00
Martxoak 13 ostirala
GAZTELU ZAHAR



RÉUNIONS PUBLIQUES

BILTZAR PUBLIKOAK

Mercredi 4 mars, 18:30
Martxoak 4 asteazkena
ECOLE DE LA PLAGE
HONDARTZAKO ESKOLAN

Mercredi 11 mars, 18:30
Martxoak 11 asteazkena
TXIKI HANDI (ancien EHPAD ohia)

Vendredi 20 mars, 18:30
Martxoak 20 ostirala,
HALLES GAZTELU ARETOA

INFO +

hendaiabiltzen.unies@gmail.com
www.hendaiabiltzen.com

